

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

aste berdea zizurkilen



www.zizurkil.com

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

ekaina 2010 | 82. zenbakia | UDA



TOKIKO AGENDA 21: ASTE BERDEA

maiatzak
27

“Baserritik eskura. salmenta zuzena eta kontsumo taldeak”
Hitzaldia. 19:30ean. Atxulondo Kultur etxean.

Zizurkilgo baserritarrek ekoiztutako produktuak, bitartekaririk gabe etxeratzeko moduz eta baserriekin harreman zuzena izateko aukeraz hitz egingo dugu.



ekainak
4

Erosketa berdearen aldeko konpromisoaren sinadura ekitaldia. 12:00etan, Ibarako Udaletxean. Zizurkilgo Alkateak, Tolosaldeko hainbat alkateekin batera, erosketa eta kontratazio publikoetan ingurumenarentzat hain kaltegarriak ez diren produktuak eta teknologiak sustatzeko konpromisoa sinatuko du.

ekainak
4

Bigarren eskuko gauzen azoka.
17:00etatik 21:00etara, Villabonako Berdura plazan.

ekainak
6

Zizurkilen barrena mendi ibilbide herrikoia.
Irteera 9:00tan. Bi irteera puntu izango dira: Pello Mari Otaño plaza eta Pasmus plaza. Bi taldeak Salobieta bidegurutzean elkartuko gara. Luzeera: 12 km. Desnibela 150 metro. Zizurkilgo Udalerria ekialdetik mendebaldera zeharkatuko dugu, bidean galtzeaz dauden herribideak ezagutu, eta Zizurkilgo Andrezketa eta Asteasuko Ibargun baserrien ekoizpenak eta egiten duten lana ikusiko dugu.



“Hiriko baratzezaintza: baratzeak balkoian”

Helburua: Oinarrizko ezagutzak lortzea eta teknika errazak ikastea baratza txikiak landatu ahal izateko terraza eta balkoietan.
Hizkuntza: gaztelaniaz.

Datak: **ekainak 1, 3, 8, 10 eta 15.** Ordutegia: 16:30etatik–19:30etara.

Lekua: **Itsasmendikoi Fraisoro nekazal eskola** (Zizurkil).

Irakaslea: Manuel Esparza

Parte hartzeko, ezinbestekoa da aldeaz aurretik Itsasmendikoi Fraisorora deitzea. Telefono zenbakia: **943 69 21 66**



KULTURA:

LOATZO MUSIKA ESKOLA: Loatzo Musika Eskolako haurren ikasturte amaierako kontzertua 18:30ean Sanmillan elizan.

ekainak
23

SAN JUAN BEZPERAKO SUA:

20:00etan Pasmus Plazan herritarrek bilduko dira, Elbarrenako su ezberdinak bisitatuko dituztelarik kalejiran. 22:30ak aldera Pasmus Plazako sua piztuko dute, San Juan Dantza dantzatu eta zizka-mizka batekin amaiera emango zaio festari. 22:00etan Udaletxe aurrealdean sua eta txokolatada, Sanmillan eskolako guraso elkartearen antolakuntzapean.

KIROLA:


ekainak
6

JOSE MARI ZULAIKA AIZPURUA “PASKUALTXO”RI OMENALDIA: 11:30ean: Herri Kirol jaialdia Zizurkilgo Aundinibar baserriko belardian. Harri jasotzaileak (Perurena aita-semeak, Saralegi, Goenatxo...), aizkolariak (Nazabal, Larretxea, Olasagasti...), segalariak (Lizaso, Mendizabal, Urki, Erasun...), korrikalariak (Garin anaiak, Agirresarobe, Artola...) eta trontzalariak.

14:00etan: lagun arteko bazkaria Zizurkilgo Intxaur frontoian. Ondoren, bertsolariak eta trikitixa jaialdia eta opari ematea.

ekainak
20

NESKA TXIRRINDULARIEN ZIZURKIL-VILLABONA SARI NAGUSIA: 10:00etan



EUSKERA:

OPORRETAN EUSKARAZ: Ekainaren 28tik uztailaren 23ra. 1998-2006 urte bitartean jaiotako haurrei zuzendutako udaleku irekiak. Gurasoen bilera: ekainaren 18:00an 18:00etan Atxulondo Kultur Etxean.

DIRULAGUNTZAK: Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen Ikastaroetan parte hartzen duten zizurkildarrei Udalak dirulaguntzak emango dizkie matrikulak ordaintzeko. Informazio gehiago: Aurrera Plazako Udal Bulegoetan.

BESTELAKOAK:

ELBARRENAKO FESTETAKO KARTEL LEHIAKETA: Edozeinek parte har dezake, lana DIN A4 tamainan aurkeztu beharko da, lau koloretara eta teknika libre erabil daiteke. Testua: “Zizurkilgo jaiak 2010. Irailak 8-9-10-11-12”. Lanak ekainaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira Udal bulegoetan (Aurrera plaza 3) edo liburutegian. Saria: 175 euro.

ekainak
12

OTAÑO IKASTETXEKO IKASTURTE AMAIERAKO FESTA: Futbol partidak, haur jolasak, ikasleen emanaldiak, abesbatza, bazkaria, mus txapelketa, puzgarriak, tailerrak eta beste hainbat joko.

KOADRILEN EGUNA Uztailaren 3an izango da.